

Gure ardura



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



DOM CAMPISTRON

Emazteen eskubideen aldeko egunaren bezperan idazten ari naizenez zutabe hau, zenbait gogoeta heldu zaizkit burura. Aitzinamendurik izan dela ez da dudarik (azkenetarik izan daiteke Frantziako Gobernuak abortua konstituzioan sarrarazteko erabakia), baina kezkatzekoa ere badugu, Simone de Beauvoirek zioen bezala, krisi uneetan bereziki emazteen dretxoak direlako lehenetarik erasotzen direnak. Haur klaseetan, ohargarri da ikasleek barneratu dutela politikoki zuzena den berdintasun diskurtsoa. Bizkitartean, eleen ondoan, jokamoldeak ez dira erabat aldatu, aire hartze denboran: mutikoen eremuaren bi herena okupatzen dute, futbolarekin edo pilotarekin, neskak soka saltoan ari direlarik aterpean. Egia da, halere, neska batzuk ausartzen direla mutikoen ibiltzen; alderantzizkoa, nekeago da. Ezagutzen dudan irakasle-gai batek egin saio experimental batean, hauxe idatzi zuen ume batek: “Lehen baino zailago da mutiko izatea”. Erranaldi hori bi zentzutan har daiteke: gero eta nekeago zaie, gizonezkoek, beren maskulinitate zapaltzailea erakustea, eta hori seinale ona da; edo ez da erraz gizontasun klixeeetatik kanpoko ibilmoldea onartzea, mutikoa edo gizona zarenean. Hain zuzen ere, iruditzen zait trufaga-

rriagoa dela, jendartean, soka saltoan ariko den mutikoa, xuriketak hedatuko dituen gizona, negar egingen duena, egur mozten edo enbrage aldatzen ariko den neska baino, sentiberatasunik agertuko ez duen emakumea baino.

Azken datu orokorrek diote sexismoak gora egin duela, bereziki gazteenengan. Frantziako Emazte eta Gizonen arteko Berdintasunaren Goi Batzordeak 2024ko urtarrilaren 22an plazaratu txostenaren arabera, matxismoa indartzen ari da: emazteen askatasunari buruzko pasibotasuna, gorrotoa eta ukatzea gorantz doaz. Zer egin? Familiak hobeki hezi, emazteen presentzia erregulatu eta portaera jasangaitzak zigortu, du erantzuten txostenak. Sekulako erronka, bistan dena, egitura publikoendako, eta gu bakoitzarendako.

Eredugarri iruditzen zait, adibidez, Alemaniak 2022ko Deutscher Buchpreis sari ospetsuaren bidez sariztaturiko *queer* eleberri bat, Kim de l’Horizonen *Blutbuch*. Obra horretan, autoreak bere familiaren genealogia femininoa egiten du, goretsiz bere amatxi, etengabe konparatzen duela itsas fluidoari. Hizkuntza harrigarria asmatzen du idazleak, genero neutroa markatzeko kode bat erabilia, estilo berritzaile txundigarrian. Urrun gara, hemen, idazkera

inklusiboari buruzko ohiko eztabaidaz: literaturari esker du irudikatu aterabidea Kim de l’Horizonek. “Nehoz ez genioke Goncourt saria emanen horrelako ausart bati!”, zioen, oro har, kritika frantsesak, aski lan izan zuelarik Annie Ernaux omentzeko, Nobel saria erdietsi zuelarik. Beren ardurak ez dituztela erakundeek denetan hartzen...

Arrunt beste gisa batez, emazteen defendatzeko norbanakoaren ardurak bultzatu du, parte, Bea Salaberri idazlea *Mesfida zaitetz* eleberria plazaratzera, Txalaparta argitaletxean. Hamar bat urtez ondu duen epopeia domestiko horretan, nehoiz ikusgarritasunik izan ez duten emazteei protagonismoa eskaintzen die, hau da, ETA laguntzen engaiatu zirenak, Iparraldean, erakunde kideak aterpetzeraino, isiltasun handiengan. Liburua martxoaren 6an atera denez Ortzazeko Menta liburutegian egin aurkezpen ofizialean, ez dut irakurria, eta, dena den, lagunaren obraz erran nitzakeen ele goxoak susmagarriak lirateke –adiskidearen lana kritika ezina daitekeelako...-. Ez dut dudatzen, haatik, frankok irakurriko duzuela nobela hori, eta autorearekin lagun ez izanagatik ere gozatuko duzuela, gure historia hurbila zorrozki finkatzen duelako, generoez haratagoko memoria kolektiboan. ●